



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola

DONOSTIA KIROLAK AURKEZTU DUEN 2018 URTEKO MEMORIAK DONOSTIAKO KIROLA SASOI ONEAN DAGOELA ERAKUSTEN DU

Memoria honetan jasotako datuek erakusten dute kirola nola bizi den donostiarren artean, hiriaren nortasunaren ezaugarrietariko bat bihurtzen ari da eta. Adierazpen hori oinarritzeko, memoriak zenbait zutabe aipatzen du: hiritarren kirol praktika altua, Kirol Txartelaren hedapen handia eta kirol ikastaroetan partaidetzaren igoera, kirol ikuskizunen egutegia finkatzea, gure kirolarien emaitza hobezinak (batez ere, neskena), udal kirol zerbitzuen erabiltzaileen gogobetetzearen ona eta zerbitzu horien kudeaketa eraginkorra, arduratsua eta jasangarriaren bidez lortu diren emaitza onak dira Donostiako kirol jardueraren ardatzak.

Kirolaren praktika

Hiritarren kirol praktikari dagokionez, **biztanleriaren %73ak baino gehiagok kirola egiteko ohitura** (gutxienez astean behin) daukela adierazi behar da. Datu hauek, hiru urtero egiten den kirol ohiturei buruzko inkestatik datozenak (azkena 2018 urtean), Europan dauden kirol praktikatik gora kokatzen gaituzte. Gainera, kirol praktika emakumeen artean gehiago hazten dela azpimarratu behar da.

Udaleko kirol zerbitzuei dagokienez, **Kirol Txartelako harpidedunen kopuruak gora egin du eta 48.000tik gora kokatu zen iaz (48.326)**. Kontuan badugu klubek kudeatutako zenbait udalaren kirol instalaziotan berezko harpidedunak ere badaudela, Donostiako udalaren kirol instalazioetan 56.000 harpidedun daude hirian, biztanleriaren % 30 baino gehiago.

Donostia Kirolak antolatutako **kirol jardueretako kanpainetan 35.000 pertsonak hartu zuten parte. Azpimarratzekoa da Kirol Ekintzak Kanpainako ikastaroetan partaidetza igotzen jarraitzen duela, eta iaz ia 18.000 partaide erregistratu ziren.**

Beste datu garrantzitsua hirian kirol praktikaren bilakaera islatzen duena da **udalaren kirol instalazioetan izandako erabilerari dagokiona, 2018 urtean 3.000.000**



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

Donostia Kirola

erabilera gainditu ziren berriro (3.038.000), Altzako ixtearen arren. Paco Yoldi kiroldegia izan zen erabiltzaile kopuru handiena bildu zuen instalazioa iaz, 470.000 sarrerekin, eta gero Zuhazti eta Bentaberri kiroldegiak kokatu ziren, 350.000 erabilera bana.

Klubak eta kirol elkarteak, ezinbesteko aliatuak

2018. urtean zehar, Donostia Kirolak **1.400.000€ banatu zituen dirulaguntzen moduan**, eta onuradunak izan ziren 40 ikastetxe eta 82 kirol klubak.

Eskola Kirolaren eremuan, ikastetxeek 5.000 lizentzia biltzen dute (matrikulazioaren %73k parte hartzen du lehiaketa hauetan), eta dirulaguntza jaso duten **klub guztien artean 10.000 kirolari inguru daukate** (kadetetik helduen mailara). Azpimarratu behar da, lizentzi kopuru horren %33 emakumeen lizentziak direla, eta hauek gorako joera erakusten dutela azken urteetan. (8 puntu azkeneko lau urteetan)

Goreneko kategorietan dauden Donostiako kirolarien emaitzei esker ere hiriak duen kirolaren erreferentearen irudia finkatuta geratu da 2018. urtean. Guztira, **33 kirolarik jaso zuten Donostia Kirolak ematen duen Urrezko Kirol Txartela**, Espainia zein Europa edo munduko mailako txapelketetan lortutako emaitzengatik, ahaztu gabe bere modalitateko maila gorenean liga edo kopako titulua lortu zuten zazpi talde donostiarrak. Azpimarratu behar da ere, Estatuko hiriburuen artean, goi-mailako taldeei dagokienez, Donostiako emakumeen kirolak duen lehen postuari eutsi diola.

Horrez gain, hirian antolatzen diren **jolas izaerako herri jardueretan** (krosak, pilota, futbol txapelketak...) partaidetzak ere gora egin zuen 2018. urtean, guztira 71.000 partaide bildu zituzten proba hauek. Apaigarria da, 60.867 pertsonak hirian antolatutako 47 herri lasterketetan parte hartu zutela.

Beste alde batetik, Donostia izan zen berriro kirol txapelketa garrantzitsuen egoitza. 2018. urtean 40 kirol ekitaldi antolatu ziren, urtean zehar banatutako kirol ikuskizunen urteko egutegia finkatuz. Egutegi honek osatzen dituzten ohiko jardueraz gain (Maratoia, Erregeen Krosa, Behobia, zaldi lasterketak, nazioarteko triatloia. Estropadak..., 2018. urtean hirian beste kirol ikuskizun handiak ikusteko aukera izan



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola

dugu, besteak beste, Espainiako hondartza futboleko selekzioen arteko txapelketa, Espainiako Bela Arineko Txapelketa edo Nazioarteko Igeriketa Txapelketa.

Kudeaketa eraginkorra, arduratsua eta jasangarria

Donostia Kirolak bere eremuan erreferente bihurtu duen kudeaketa eredua garatzen jarraitzen du, eta horren aintzatespenaren moduan 2016. urtean Eusko Jaurlaritzak ematen duen Kudeaketa Aurreratuari Brontzezko saria jaso zuen, orain arte Euskadiko lehen udal kirol zerbitzua delarik.

Ekonomiko arloan, Donostia Kirolak **asko hobetu du bere autofinantzaketarako zeukan helburua**, eta adierazle orokorra 66,20% datuan kokatu da; beste aldetik, autofinantzaketa funtzionala %70,29ra igo da, eta honek udalaren ekarpena murriztea berekin ekarri du.

Donostia Kirolak duen gizartearekiko konpromisoa edozein pertsona, bere egoera ekonomikoa zein soziala edonolakoa den ere, kirol praktika egiteko aukera izan dezan egiten diren ekimen ugarietan islatzen da. Horretarako, programa ezberdinak garatzen ditu Donostia Kirolak, besteak beste, Kirol txartela Solidarioa, Gizarte Kirol Txartela, harrera etxeekin akordioak edo errefuxiatuekin lan egiten duten erakundeekin..... Konpromiso hau **balantze sozialean zehazten da, eta 2018 urtean 478.000€** helburu horretarako bideratu ziren.

Jasangarritasunari dagokionez, azpimarratu egin behar da 2016 urtean kontratu energetiko berria sinatu zenetik, kiroldegietan izandako kontsumo energetikoa %21 jaitsi egin dela; eta **CO2-ko isurketak %50 jaitsi dira azken lau urte hauetan.**

Erabiltzaileen gogobetetzea

Udalaren kirol zerbitzuen erabiltzaileek egiten duten **balorazioa altua izan zen 2018. urtean ere**. Izan ere, udal Kirol instalazioen erabiltzaileen balorazioa 7tik gora mantendu zen, eta Kirol Ekintzak kanpainan parte hartu zutenen balorazioa 8tik gora.